


Gizarte Arloko Topaketak



**Txertaketaren
ondoren sortzen
ari den agertoki
berria**

Egoitzetan txertaketa-prozesua amaitzeak bestelako errealitate baten aurrean jartzen gaitu, eta horrek ere beste ikuspegi bat aplikatzea eskatzen du. Hala eta guztiz ere, COVID-19ak eragindako pandemian murgilduta jarraitzen dugu, eta, beraz, agerraldiak saihesteko beharrezko prebentzio-neurriei eutsi behar diegu.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saisetarako prestakuntza sustatzen jarraitu nahi dugu, zentroetako profesionalen lana bultzatzen duten jardunaldien bidez.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lankidetzan, **martxoan zehar**, hilaren **16, 23 eta 30ean**, hiru ikastaro online egiteko ziklo bat antolatu dugu. Ikastaro bakoitzak bi orduko iraupena izango du, eta izenburu hau izango du: **“Txertaketaren ondoren sortzen ari den agertoki berria”**.

Zikloaren koordinazioaz Izaskun Carlos arduratuko da, Bizkaiko Foru Aldundiko Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuko burua.

ONLINE PRESTAKUNTZA DOAKO INSKRIPZIOA

Martxoaren 16an

16:00-18:00

Txertaketa prozesuaren eta zentro soziosanitarioetan covid-19tik babesteko protokolo berriaren alderdi nagusiak

2021eko urtarrilaren 29an, eremu soziosanitarioko egoitza-zentroei aplikatu beharreko azken protokoloa onartu zen, eta otsailean amaitu da txertaketa-prozesua egoitza gehienetan.

Txertaketak eta protokoloak lotura estua dute, eta jardunaldi honetan jorratuko dira, bien alderdi nagusiak.

Ikastaroa Concha Castellsek emango du, medikua. Zaintza Epidemiologikoaren Unitatea. Bizkaiko Osasun Lurralde Ordezkaritza Adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetako zuzendaritzari eta osasun-langileei zuzenduta, batez ere.

Martxoaren 23an

16:00-18:00

Zentroetako bizitzaren beharrezko normalizaziorantz

Prebentzioaren esparruan jarduten jarraitzea ezinbestekoa bada ere, Bizkaiko Esku-hartze Sozialeko Etika Batzordeak hausnarketa-dokumentu bat idatzi du neurrien aldaketa egungo esparruan bideratzeko moduari buruz. Egoitzetan bizi diren pertsonen normaltasunerako bidea pixkanaka hasteko unea da.

Gogoeta-dokumentuan egiten den proposamenaz hitz egiteko, Marije Goikoetxea izango dugu, giza eskubideetan doktorea eta Psikologian eta Teologian lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean. Bioetikan masterra. Gizarte eraikuntzarako etikaren masterra.

Adineko pertsonentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako zentroetako profesionali zuzendua.

Martxoak 30

16:00-18:00

BAP: pandemiak sortutako efektuen ondoren erabiltzaileengan landu beharreko jarduerak eta helburuak biltzen dituen tresna

Banakako Arreta Plana (BAP) banakako programazio bat da, esku-hartzea pertsona bakoitzaren banakako beharretara hobeto egokitzen dela bermatzeko.

Pandemiak behar espezifikoak sortu ditu, eta horiek kontuan hartu behar dira BAPean.

Gai honi buruz hitz egiteko, Andrés González izango dugu, GUFEn erizaina eta IPK erreferenteen taldeko koordinatzailea.

Zentroetako diziplina anitzeko taldeak osatzen dituzten pertsonari zuzenduta.